



Prentsa oharra: "LATXA ARRAZAKO V. ENKANTE OFIZIALA", "MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIA" eta "LORE ETA LANDARE AZOKA" (2026ko maiatzaren 17a)

Ekitaldia, Larraungo Udalak, Lekunberriko Udalak eta ASLANAk antolatua, berriz ere bat etorriko da Mendialdeko Azoka Ibiltariarekin (Mendialdeko Azoka Ibiltaria) eta Lekunberriko Lore eta Landare Azokarekin.

Aurten ere, Mendialdeko Azoka Ibiltaria eta ugaltzaile genomikoen enkante ofiziala egun berean egingo dira Lekunberrin. **Larraungo Udalak 2022tik sustatzen du ekitaldi hau ASLANA elkartearekin eta Lekunberriko Udalarekin elkarlanean.** Horiez gain, Mendialdeko Azoka Ibiltaria antolatzen laguntzen duten beste erakunde batzuk ere badaude: Plazaola Partzuergo Turistikoa, Cederna Garalur eta Habelarte elkarteak.

Aurreko edizioen arrakasta (5. edizioa azokan) eta Mendialdeko Azoka Ibiltariak (7. edizioa) lortutako tokiko errotzea ikusita, aurten Lekunberriko Lore eta Landare Azoka (8. edizioa) gehitu da; guztiak eskualdeko azoka eta ekitaldien egutegian sendotzen ari diren hitzorduak dira.

Latxa arrazako V. enkante ofiziala

Beste urte batez, Larraungo eta Lekunberriko udalek beren baliabideak azokaren zerbitzura jartzen dituzte, batez ere azoka arrakastatsua izan dadin eta Euskal Herri mailan erreferente bihurtu dadin.

Helburu horretan, ASLANAren (Nafarroako ardi Latxa arrazako artzain elkarteak) laguntza tekniko eta profesionala dute. Elkarte hau latxa arrazaren hobekuntza genetikoan espezializatuta dago. ASLANAk, ARDI proiektuaren bidez (POCTEFA funtsak), ebaluazio genomikoaren metodologia berritzailea txertatu du bere hautaketa-ereduan, eta horrek aurrerapausoak ekarriko ditu hobekuntza prozesuan eta lan egiteko moduan.





Horrenbestez, datorren igandean, **maiatzaren 17an, balio genetiko handiko ahariak enkantean jarriko dira**, edozein abeltzainek eskuratu ahal izan ditzan, eta horrela latxa arrazaren hobekuntza sektore osora eta gizartera zabaltzeko.

laz, Nafarroako eta EAeko abeltzain ugari hurbildu ziren azokara, eta antolakuntzak aurten parte-hartzea handitzea espero du.

Ekitaldia 10:00etan hasiko da Lekunberriko Herriko Plazan, enkantean jarriko diren ahari genomikoen erakusketarekin. Une horretatik aurrera, 12:00ak arte, enkantean parte hartzeko txartelak eskuratu ahal izango dira.

12:30ean hasiko da enkantea, eta 13:00etan arkume errea dastatzeko aukera izango da, Habelarte baserritarren elkartearen eskutik.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria eta Lore eta Landare Azoka

Lekunberriko Udalak hartuko du lekukoa Araitzetik; izan ere, apirilaren 19an, han abiatu zen *Mendialdeko Azoka Ibiltariaren* 7. edizioa. Oraingo honetan, Lekunberriko alde zaharrean egingo dira *Mendialdeko Azoka Ibiltaria* eta *Lore eta Landare Azoka*, maiatzaren 17an, igandean.

Gogoratu behar da aurten **artisaauk bost azokatan parte hartzen ari direla, apiriletik azarora bitartean Mendialdeko hainbat herritan banatuta**. Elikagai eta artisautza postuez gain, azokak jarduera eta ekitaldi osagarriak ere eskaintzen ditu, bisita are erakargarriago bihurtzen dutenak.

Helburua da publiko berriak erakartzea eta bisitarien egonaldia dinamizatzea, landa-inguruneari eta lehen sektoreari lotutako jardueren bidez. Horrela, gure lurraldea ezagutzea eta gehiagoz gozatzea sustatzen da, eta, jakina, tokiko zerbitzu eta produktuen kontsumoa handitzea.





Gainera, oraingoan lore eta **landare postuak** ere gehituko dira; duela zortzi urtetik maiatzean Lekunberrira iristen dira, udaberriko azokari bizia eta kolorea emanaz.

Hurrengo azoken **egutegia** honakoa da:

- Ekainak 28 – Goldaratz (Imotz): Azoka + Ibilbideen Eguna
- Irailak 13 – Leitza: Azoka + XXI. Talo Eguna
- Urriak 11 – Areso: Azoka + VI. Emakume Artzai Eguna

Azokaren ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da.

Lekunberrira hurbiltzen denak 30 bat postu aurkituko ditu: elikagaiak (gazta, eztia, taloa, hestebeteak, haragia, ogia, arrautzak...) **eta artisautza** (egurra, zeramika, metala, ehungintza...), Mendialdeko artisauen eskutik.

Tokiko produktu onenen erakusleioa da, modu jasangarrian eta arduratsuan ekoizitakoak, eta bereziki baloratzen da bertako lehengaien erabilera. Ekimen honek, gainera, landa-eremu hauetako ingurumenarekin, paisaiarekin, ekonomiaren eta kulturarekin lotutako kontsumo arduratsua sustatzen du.

Ekitaldiaren **antolaketa Mendialdeko 10 udalek parte hartzen dute** (Araitz, Arano, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberri), Cederna Garalur eta Plazaola Partzuergo Turistikoaren koordinazio teknikoarekin, eta HABELARTE baseritarren elkartearen, eskualdeko ikastetxeen eta kontsumo taldeen laguntzarekin (Araizko Zaporeak, LeitzEKO eta Bertatik Bertara Dinamika).

Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarekin.

Lekunberri, 2026ko maiatzaren 6a

OHARRA: Ugaltzaile genomikoen azoka ofizialari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Maite Lasarterekin (ASLANAko teknikaria): 636 347 472

